

# kitto!

...eta

762 zkia. 2011-V-6

ASTEKARIA


# ELA

EUSKAL SINDIKATUA

# 100 urteko ibilbide eraginkorra



*Eclipse*  
Ropa Juvenil  
de la 40 a la 48



Zuloagatarren, 7 - behea

*Gazte Jantziak*

40 talletik 60ra artekoak

Tel. 943 53 02 48

*Euskal Herrixan afiliatu gehixen dakan ELA sindikatu abertzaliak sortu zala 100 urte betetzen dittu aurten eta, hori aprobetxatuz, hainbat ekimen antolau dittu efemeridia gogoratu eta egindako bidari errepasua emoteko. Danetariko gauzak izan dittu ibilbide horrek, "gerra osteko une latzak tartian, ondasunak be kendu zeskuezen-eta". Oñ harro dagoz denbora horretan lortutakuekin eta animoso etorkizunari begira. Gure herrixa be historixa horretako protagonista izan da hainbat bider eta, hillaren 9xan eta 10ian Bidebarrieta kaleko egoitzan ikusgai izango dan erakusketia aprobetxatuz, bertako ordezkari birekin izan gara. Jarraixan dozue Jose Angel Ulaziarekin eta Amaia Lasagabasterrekin izandako tartetxuan sindikatuari buruz egindako analisisa, ehun urtiotako hainbat urrats gogoratuz.*

**B**ilbon egin zittuan lehelengo urratsak ELA sindikatuak oin dala ehun urte, Correo kalia, 178 bihargin bildu eta Solidaridad de Obreros Vascos-eko araudixa onartu ebenian. Sindikatuak azkar batian hartu eban indarra Gipuzkoan eta Bizkaian, baiña hamarkada bi bihar izan zittuan Araban eta Nafarruan estabildadia lortu arte. Eibarren sindikatuaren ordezkari moduan urte mordua daroian Jose Angel Ulazia mutrikuarra Manu Robles Fundaziñoko idazkarixa da gaur egun eta, berak diñoskunez, "sindikatuaren sorreran, rebindikaziño bidia hartu biharrian, afiliatuaren babesa billatu eban ELAk: mutualidadiak sortu,



Eibarko Unión Local-ak 1977xan Moncloaren paktuen aurka egindako manifestaziñua. / JUAN CRUZ LOPEZ.

## Mende osua bihargiñen aldeko borrokan

*konsumo kooperatibak eta halakuak... Tostarteko arrantzaliñentzat be barku bi erosi zittuan eta baita lurak Nafarroako Erriberan". Premiñazko artikuluak merkia-go erosteko hainbat inizatiba hartu zittuan sindikatuak bihargiñen alde.*

Langabetuendako komedoriak, subsidio berezixak, atenziño medikua, eskolarizaziñua... guzti hori baztertu barik be, pausu baxiak emoten hasi zan ELA eta baita marko geografikua zabaltzen, ofizietako agrupaziñuen inguruan. **1929xan lehelengo Kongresua egiñ eban, Eibarren** hain zuzen: "Urriaren 12xan eta 13an izan zan, Asteleñan. Orduan frontoia baiño gehixago antzoki antzerakua zan", diño Ulaziak. Kongresu horretan hartuko dau indarra arlo errebindikatibuak eta Gasteizen egindako bigarrenian STV izena hartuko dau eta Sindikatu Kristauen Naziñoarteko Konfederaziñuan sartuko da. Sasoi horretan, eta behin Errepublikan sartuta, "gero eta aliantza gehixago izango dittu sozialista eta anarkistekin".

Behin 50.000 afiliatu izatera heldu zanian eta Iruñean 3. Kongresua egitteko prestaketak hasitta, Gerra Zibillak bertan behera laga eban kongresu hori eta, ondoren, klandestinidarian eta exilioan mugidu zan ELA. "Eusko Gudarostearen barruan, San Andres batalloia osatu eben gurera afiliatuak", kontatzen deskue Amagoia Lasagabaster eskualdeko arduradunak eta Ulaziak. Ha-

men euren biharra egitteko kondiziñorik ez ba eguan be, naziñoartian gogor saiatu ziran orduko arduradunak eta Munduko Sindikatuen Federaziñuan eta Sindikatu Libreñen Naziñoarteko Konfederaziñuan integratu ziran: "ELAren nortasuna naziñoartian izan da beti eta harrotasunez esan geinke mundu guztiko erakundietan izan garala. Poloniako Solidarnosc-ekin gu izango gara bakarrak hainbeste esparruetan egoten", diñoskue harrotasun puntu batekin.

### Hirugarren Kongresua be Eibarren

Francoren erregimena amaieran, "belauñaldi baxiak hartzen dau indarra sindikatuaren refundaziñua edo birsorkundia gertatzen da". 1976ko Kongresua zati bittan egingo da, lehelengua Euban eta bigarrenengua Eibarren: "Hamen presentaziño publikua egin zan eta sindikatuak sozialista defintidu eban bere burua, munduko naziñuen askatasunaren aldekoa". Horrekin batera, "erabagi potoluenak hartu ziran, euren artian, independentzia politikuaren aldekoa eta baita autonomia finantziarixuaren aldekoa, horrek gure kuotak jasotzia ekarri arren". Alkartasun erresistentzia kuxarena be sasoi hartakua da.

1977ko maiatzaren 2xan legalizauko dabe sindikatuak, "beste 180 organizaziño eta asoziaziño profesionalekin batera". Horrekin batera, Moncloako paktuen aurka egin-

go dau ELAK eta bere politika sindikala "halako paktuen kontrakua izango da". Bihargiñen Estatutuaren kontra be egingo dau eta euskal esparruaren aldeko posturia hartuko. Autonomia Estatutuari babesa eskinduta be, "handik aurrera ikusitta zelan gauzatu zan, 1997xan Gernikako ekimenian Estatutua hilda zeguala" aldarrikau eban eta soberanismoari heldu zetsan. Bittartian, Lasagabasterrek gogoratzen deskunez, "90. hamarkadarekin batera, generuarena eta generazionala izango dan aldaketia gertauko da sindikatuan. 8. Kongresuko fotografixa 'zatarrak' (35 gizonetzko eta emakume bakarra) emakumiari eta gaztieri bidia egin bihar jakuela emon eban aditzera eta horri heldu gentsan". Horrekin batera juan zan "erabagi potoluak adostuta hartuko zirala" esaten eban asmua be, ordutik bete dana.




Jose Elorrieta ELAko sekretarixoa nagusixa izandakoa Eibarren sindikatuko kideekin.

### Lau egoitza Eibarren

Gure herrixan, Kongresuetatik aparte, "ELAn izen propixua" euki daben jendia egon da: "Jose Gorroñogoitia I. Zuzendaritza Konfederaleko buruarekin batera, Andoni Zendoia eta Luis Mari Arana ejekutibako kidiak dagoz, eta baita Naziño batzordeko Juan Cruz López eta Alfonso Moya". Eibarren Polikarpo Larrañaga apaizaren lana be aitzindarixetakua izan zan: "Sasoi hartan bihargiñak ez ziran plaza-gizonak eta apaizak ahalmen gehixago ekelako propagandista izateko".

Sindikatuak, gaur egungo Bidebarrieta kaleko egoitzaren aurretik, beste hiru izan dittu mende honetan: "Ubitxako errebueltan 1976ra arte eguanarekin hasi -instalaziño `oso eskasekin, biharra egitteko baldintza kaskarrekin-, Untzaga plazan, Txoko gaiñian izan genduanarekin jarraitu



Jose Angel Ulazia eta Amagoia Lasagabaster Eibarko ELAko egoitzaren aurrian. / SILBIA HERNANDEZ

(1994ra arte) eta Arraguetakuarekin amaitzeko, bertan bost urte inguru egitteko".

### Erakusketa apala

Ehun urteko bide horretan sakontzeko aprobetxau dabe aukera hau eta, beste hainbat ekitaldixekin batera, erakusketa ibiltarixa dihardue eskintzen herririk herri. Gurian astelehenian eta martitzenian izango da ikusgai Bidebarrieta lokalian. "Panoramikia antxiñako dokumentuen kopixak eta originalak, arlo desbardiñen inguruko posterrak (Kongresuak, Maiatzaren 1ak, emakumia, ekologixia...), pegatinak, exiliatuen fitxak, argazkixak, karnetak, periodikuetako mantxetak, iikurrak... Betidaniko militantiak, gaiñera, gonbidauta dagoz martitzenian, 19.00etan, egingo dan harrerara", diñoskue ELAko ordezkari bixak. Sindikatua gaur egun? "Iñoz baiño indartsuago".

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

**MUGICIA FUNERARIA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

**Tanatorioa eta Errozketa laboa**  
Egoiberran (Signo poligonoan)  
Partikular, mitua eta osagora orokor zerbitzuak  
Koroak - Ekelak - Urteurrenko ajakak  
Euskal Herri osoko ospitaleen bertan za lugu  
Naziño eta Naziñortelako irratidok

**Mugicia Erorzketa**  
Funerarioa laboa

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

# ARTOLA

*jatetxea*

## ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Paletilla iberikoa  
Etxeko foie-a  
Piña eta Burgosko gaztai entsalada*

*Legatza laban edo  
Bakailaoa pikillo saltsarekin*

*Solomilloa plantxan edo  
Karrillera ondo-saltsarekin*

*Degustazio postrea edo  
Gaztai moussea edo  
Limoi sorbetea cavarekin*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Tokia gordetzeko:  
**943206348**

**25 €** + BEZ

asteko

425.932

datua

euroko defizitarekin itxi eban 2010eko ekitaldiko balantzia Imesa udal inbiliarixak, oin dala egun batzuk egindako urteko batzarrian. Urteko memorixak jasotakuaren arabera, protekziñoko 82 etxien promozioñuan 10.760.000 euro gastau zittuen.

## Autoenplegu tailerrak Ekintzaille Egunerako

**MAIATZAREN 26-XAN EKINTZAILLIAREN EGUNA OSPATU-KO DABE DEBEGESAN ETA, HORREN HARIRA,** arratsaldia beteko daben hainbat jarduerak osatutako programia preparau dabe: 18.00etan hasitta, Juan Luis Urkola (Urkola Formación y Consultoría) gonbidatu dabe hitzaldixa eskintzeko eta, horren ostian eta iaz egindakuaren bidetik, 2011ko Debabarrena Ekinean! Eta Bai Industriari! errekonozimenduak banatuko dittue. Debabarrena Ekinean! Programaren barruan sortutako Txioka enpresakuak preparautako piskolabisarekin agurtuko dabe jardunaldixa. Parte hartu nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau ekintzailea@debegesa.com helbidera mezua idatzitta.

Bestalde, Ekintzaille Egurenaren inguruan autoenplegu tallarrak eskinduko dittue Debabarrenako 8 herrixetan, astelehenian bertan hasi eta hillaren 19ra bittartian. Ikastaruak herri bakotzeko Kzgunian emongo dittue (Mutrikun Birgaitze buleguan). Eibarren astelehenian, hillaren 16xan izango da ikastarua, 12.00xetatik 13.00etara. Honetan parte hartzeko be lehenago emondako helbidera idatzi leike edo Debegesako 943820110 telefonora deittu (Vanesa).



**DOMEKAN HIL ZAN ASUN ANGUERA ILLARRAMENDI ETA ASTELEHENIAN EGIN ZAN HARI AZKEN AGURRA EMOTEKO EKITALDI ZIBILLA,** Txaltxa Zelaixan. Bertan herritar mordua alkartu zan, Anguera gurian oso ezaguna zalako. Bestiak beste, azken urtiotan gurian ospatu diran Eibar Kantuan jaialdixetan "Voces y Cuerdas" taldiaren ahotsa izan zan Anguera eta beraren gaiñeko hainbat kontu Ego Ibarra batzordiarene artxibuan jasota geratu dira, tartian Eibartarren Ahotan proiektuaren harira egindako grabaziñuak. Bertan daguazten testimonixueri jarraituta, Anguera gaur egunian desagertuta dagan baiña Gerra Zibillaren aurreko urtietan oso

## Asun Anguera hil da



Asun Anguera Eibar Kantuan jaialdixetako batian kantuan.. / LEIRE ITURBE

ezaguna izan zan Arraindegi kalian (Arraindikalen) jaixua, antziñako Eibarri buruzko kontu mordua ederto ezagutzen zittuan, batzuk zuzenian bizi izan zittualako eta beste batzuk, barriz, etxian jaso eta goguan zittualako. Horrekin batera, aittak

moduan musikarekiko zaletasun haundixa izan eban eta, gure herriko abesti ezagunak abestiaz ez eze, Eibarko kantua jasotzen dittuan Udalak kaleratutako liburuxka osatzeko orduan "laguntzaille ezinbestekua" izan zan.



## ELAren 100 urtiak ospatzen

**ELA SINDIKATUAREN SO-RRERAREN 100. URTEURRENAREN HARIRA, ASTELEHEN ETA MARTITZENIAN EIBARKO EGOITZAN** ikusgai egon zan sindikatuaren historixari errepasua emoten detsan erakusketa ibiltarixa. Horren aitzakixarekin, gaiñera, martitzenian bat egiñ eben ELAko kide, kide-ohi eta lagunak erakusketatik ikusi eta piskolabisa egitteko. Gaur egunian Deba eskualdian 6.000 afiliatu eta 400 ordezkari inguru dittuan sindikatua 1911ko ekaiñaren 11n hasi zan lehelengo pausuak emoten, Solidaridad de Obreros Vascos izenarekin. Hurrengo urterako 1.000 afiliatu zittuan

eta 1918xan Gipuzkoako eta Bizkaiko federaziñuak eratu zittuen. 1929ko urrixan STVk lehelengo kongresua egiñ eban Eibarren, sozialistak nagusi ziran herrixan. Ordurako Bizkaian 6.200 afiliatu zittuan eta Gipuzkoan 1.500. Gerra sasoko oztopuak gaindittuta, gerria amaittuta lehenagotik hasittako bidari segidu zetsan eta ELAK egindako lehelengo kongresurako Eibar aukeratu eben. Sindikatuaren sorrerixaren 100 urteurrena, ospatzeko, bestiak beste, horretxek guztiak gogora ekarri nahi izan dabe herririk herri ikusgai eruaten diharduen erakusketan bildutako erretratu zein bestelako materixalarekin.



EIBAR

## El sindicato ELA recoge en una exposición en Eibar fotografías y materiales sobre su historia

Mantiene abierta la muestra hasta esta tarde en su sede de la calle Bidebarrieta

10.05.11 - 03:02 - A. LETE | EIBAR.

Fotografías, medallas, documentos, informes, carteles o pegatinas. Son algunos de los materiales que se pueden ver en la exposición que el sindicato ELA ha organizado en Eibar dentro de los actos de celebración del centenario de su creación. La muestra estará abierta hasta hoy en la sede del sindicato, situada en la calle Bidebarrieta. Además, esta tarde, a partir de las 19.00 horas, se celebrará una jornada de reunión entre antiguos y actuales miembros y responsables de la central sindical.

Esta exposición forma parte del programa de actividades que ELA está llevando a cabo para conmemorar sus cien años de existencia. El sindicato fue creado el 11 de junio de 1911 con el nombre Solidaridad de Obreros Vascos. Entonces también era época de crisis y nació con el objetivo de aunar y organizar a los trabajadores.

### Congresos en Eibar

STV celebró su primer congreso en el frontón Astelena de Eibar, en octubre del año 1929. Para entonces contaba ya con 6200 afiliados en Vizcaya y 1.500 en Guipúzcoa. Volvió a organizar un nuevo congreso en el municipio armero en 1976. Este encuentro se desarrolló en dos partes: la primera, de trabajo y debate tuvo lugar en Zornotza, mientras que la segunda parte, la presentación pública, se realizó en Eibar. En este congreso se aprobaron los nuevos principios y estatutos del sindicato (sindicato nacional y de clase, independencia respecto de los partidos políticos, abierto a todos los trabajadores del País Vasco e independencia económica financiándose a través de las cuotas).

La exposición que se puede ver en Eibar recoge en imágenes y diverso material el trabajo y la trayectoria del sindicato a lo largo de estos cien años. Desde imágenes con la participación y organización de manifestaciones y protestas sindicales, hasta carteles y pegatinas distribuidas en los diferentes actos sindicales impulsados.

ELA cuenta en la actualidad con más de 6.000 afiliados en las comarcas del Deba y dispone de sedes en Elgoibar, Eibar, Oñati, Bergara y Arrasate.

### TAGS RELACIONADOS

sindicato, recoge, exposicion, eibar, fotografias, materiales,

### ANUNCIOS GOOGLE

#### EAJ-PNV. Elecciones 2011

Onena emateko garaia. El momento de dar lo mejor.  
www.eaj-pnv.eu

#### Vuelos Bilbao-Londres 24€

Oferta de vuelos desde Bilbao Reserva now, asientos XL.  
www.vueling.com

#### San Sebastian

Críticas del Parador de Hondarribia Lee 38 opiniones y ve precios  
TripAdvisor.es/Parador\_de\_Hotel

#### Destrucción de Papel

Oferta Vizcaya: 175€ Todo Incluido Cualquier Cantidad; Certificado IS  
www.destruccionpapel.com



© EL CORREO DIGITAL, S.L., Sociedad Unipersonal.  
Registro Mercantil de Vizcaya, Tomo 3823, Libro 0, Folio 200, Sección 8, Hoja BI-26064,  
Inscripción 1º C.I.F.: B-95050357 Domicilio social en Pintor Losada nº 7 (48004) Bilbao.  
Contacto. Copyright © EL CORREO DIGITAL S.L.U, BILBAO, 2008. Incluye contenidos  
de la empresa citada, del medio Diario El Correo, S.A.U y, en su caso, de otras empresas  
del grupo de la empresa o de terceros.

#### EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

Contactar | Aviso legal | Política de privacidad | Publicidad | Mapa Web | Master El Correo

### ENLACES VOCENTO

ABC.es  
El Correo  
elnortecastilla.es  
Elcomercio.es  
SUR digital  
Qué.es  
La Voz Digital  
Punto Radio  
hoyCinema  
Infoempleo  
Autocasion

Hoy Digital  
La Rioja.com  
DiarioVasco.com  
Ideal digital  
Las Provincias  
El Diario Montañés  
Laverdad.es  
Finanzas y planes de  
hoyMotor  
Guía TV  
11870.com